



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 27a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—38/2013 Foru Legea, abenduaren 28koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. Akats zuzenketa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena. Proposamena bazter utzi da (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren prozedurak ezar ditzan, langabezian egonda Espainiako Estatutik kanpo bizi diren edo Nafarroara itzultzen ari diren nafar herritarrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan doako erabilbidea edukitzeko. Marisa de Simón Caballero andre-ak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da birnegerozia dezan ADIFekin eta Estatuarekin Prestazio Handiko Trenbidearen obrak egikaritzeko dagoen hitzarmena. Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren kontaktuak has ditzan Eroskiko eta Fagorreko preferenteek Nafarroan kaltetu dituztenekin, inbertitutako aurrezkiak berreskuratzeko konponbideak bilatzeko. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 19/2002 Legeko 3. artikulua bete eta prestakuntza-ekintzak bidera ditzan helduen hezkuntzan esku hartzen duten agenteentzat, eta susta dezan esparru horretako curriculum-, metodologia-, teknologia- eta didaktika-berrikuntzei buruzko proiektuen lanketa. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (8. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak lehendakaria gaitzesten da, egiazkotzat jo baitu Guardia Zibilaren ustezko txosten bat, Barne Ministerioak dioenez existitzen ez dena, eta Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio erantzukizunak argitu ditzan, kargu instituzionalek emandako informazio okerrak direla eta. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Europar Batasunetik kanpoko Barruko Mediku Egoiliarren estatusa alda dezan, ikasketa-baimenaren ordean lan- eta egonaldi-baimena emanaz. Osasun Batzordeak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du Nafarroan bizi diren pertsona guztientzako osasun laguntzari eutsi behar zaiola, eta berriz ere aldarrikatzen du Nafarroak osasunaren eta autogobernuaren arloetan dauzkan eskumenen defentsa. Osasun Batzordeak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da pobrezia energetikoari aurrea hartzeko eta aurka egiteko plan bat egin dezan, etxeko energia-kontsumo oinarritzoei aurre egiterik ez duten familiei laguntzeko neurriak jasoko dituen. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da talka-plan bat diseina dezan, ez diezaieten argindarraren hornidura ken gizarte-zaugarritasuneko egoeran dauden familiei. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabaki baitu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak artatu behar dituela Espainiatik kanpo hiru hilabete baino gehiago daramaten eta prestazioa agortu duten langabetuak. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zein urrats egin behar dituen Nafarroako Gobernuak, saihesteko foru erkidegoan ezar dadila larrialdikoa ez den osasun garraioaren koordainketa, Samuel Caro Sádaba jaunak egin (14. or.).
- Galdera, 2012-2013 ikasturteko eskola garraiorako aurrekontuan jarritako diru-kopuruari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egin (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxa Fundazioaren 2014ko ekitaldirako aurrekontuari, azalpen oroitidazkiari eta jarduketa planari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (15. or.).
- Galdera, 2013ko ekainean onetsitako Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutu berrietan ezarritako eskumen berekiak betez Nafarroako Gobernuak 2013an egindako jarduketei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (16. or.).
- Galdera, Industria eta Ekonomia Departamentuak enpresa-inbertsiorako eta enplegua sortzeko 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (17. or.).
- Galdera, Industria eta Ekonomia Departamentuak I+G+B delakorako 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (18. or.).
- Galdera, Nafarroan Ekintzaileei eta Lan Autonomoari laguntza emateko 12/2013 Foru Legeko IV. kapitulu-luan jasotako laguntzetarako 2014ko deialdiari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (19. or.).
- Galdera, azken hamar urteotan Orkoien biomasa bidezko elektrizitate ekoizpenerako planta bat jartze aldera Nafarroako Gobernuak guztira bideratutako diru-kopuruari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egin (20. or.).
- Galdera, Senda Vivaren jarduera birplanteatzeko muga gisa Nafarroako Gobernuak darabiltzan ondoko EBITDA adierazleen datari eta galera-zenbatekoari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (20. or.).
- Galdera, gazte txartela gaztelera-ingelesez besterik ez egiteari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egin (21. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 2013. urtean zehar foru parlamentariari emandako ordainsariak (22. or.).
- Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorren 2014rako ordutegi ofiziala (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

38/2013 Foru Legea, abenduaren 28koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko 38/2013 Foru Legean akats bat atzeman da (Foru Legea 2013ko abenduaren 27ko 151. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Horrenbestez, ondoko zuzenketa hau egin da:

1.- Bigarren artikuluko Bat bis atalean –6. orrialdea, eskuineko zutabea– hau jartzen du:

«Bat bis. 24.1. artikuluari h) letra gehitzea.

“h) Eroskeria-jokabideak”».

Eta honela behar du:

«Bat bis. 24. 1 artikuluari i) letra gehitzea.

“i) Eroskeria-jokabideak”».

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena.

PROPOSAMENA BAZTER UTZI DA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Foru Araubideko Batzordeak Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenaren inguruan 2013ko abenduaren 12an egindako bileran emaniko irizpen negatiboa, Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez eta batzordeen irizpen negatiboei buruzko 2013ko abenduaren 30eko Lehendakaritzaren erabakiarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela aipatu foru lege proposamena baztertu izanari dagokionez.

2. Agintzea aipaturiko irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Irizpen negatiboa

Foru Araubideko Batzordeak 2013ko abenduaren 12an egindako bileran onetsitakoa.

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari dagokionez, ezezkoa eman zaio inolako testu onesteari eta, beraz, aipatu Foru Lege proposamena bazter utzia gelditzen da.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren prozedurak ezar ditzan, langabezian egonda Espainiako Estatutik kanpo bizi diren edo Nafarroara itzultzen ari diren nafar herritarrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan doako erabilbidea edukitzeko.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren prozedurak ezar ditzan, langabezian egonda Espainiako Estatutik kanpo bizi diren edo Nafarroara itzultzen ari diren nafar herritarrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan doako erabilbidea edukitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Estatuaren 2014ko aurrekontu orokorretan –2013ko abenduaren 26ko EAOn argitaratu ziren– zuzenketa bat jaso zen, zeinaren bidez ezartzen baita langabezia-saria eta prestazioa jasotzeko eskubiderik ez duten langabeek Espainiako osasun-zerbitzu publikoa baliatzeko eskubidea galduko dutela, Espainiako Estatutik kanpo hiru hilabete eginez gero.

Zuzenketa horrek dakarrena beste eskubide-murrizketa bat da, gobernu popularra agintaldi osoan egiten ari den murrizketei gehitu beharreakoa, bai joaten direnentzat –emigranteak–, bai etortzen direnentzat ere –etorkinak–.

Alderdi Popularraren Gobernuak osasun-sistema publikotik at uzten ditu miseriatik edo gerratik ihes egin nahian Espainiara iristen direnak, "hesi-hortz zorrotzak" eta gisako disuasio-neurriak erabiltzen dira, eta orain dela egun batzuk osasun-laguntza publiko eta doakotik at utzi ditu Espainian prekaritate egoeran dauden emigrante espainiarrak.

Argi dago gastua murrizteko mentalitatea dagoela neurri horren atzean, azken muturreraino darmana asegurdunaren mentalitatea. Horren oinarrian dagoena da espainiarrak jada ez direla ikusiak babes-sistema bermatu baterako eskubidea duten herritar gisa, baizik eta asegurdun gisa.

Neurri horrek behartuta, atzerrira joandako guztiek kontratatu beharko dute osasun-zerbitzu pribatu bat gure mugetatik kanpo, edo uko egin beharko diote, bete-betean, osasun-laguntzari. Gainera, itzultzeko modua baldin badute, osasun-sistematik at geldituko dira, harik eta lan-kontratu berri bat lortu arte, eta ez-egoiliartzat hartuak izanen dira, eta ez dute artatuak izateko eskubiderik edukiko.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren prozedurak ezar ditzan, langabezian egonda Espainiako Estatutik kanpo bizi diren edo Nafarroara itzultzen ari diren nafar herritarrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan doako erabilbidea edukitzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da birnegozia dezan ADIFekin eta Estatuarekin Prestazio Handiko Trenbidearen obrak egikaritzeko dagoen hitzarmena.

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita birnegozia dezan ADIFekin eta Estatuarekin Prestazio Handiko Trenbidearen obrak egikaritzeko dagoen hitzarmena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroan, tren-azpiegitura berrien eraikuntzaren egoera ezin korapilatsuagoa da. Une hauetan, ADIFekin eta Estatuarekin sinatutako hitzarmenaren bidez Nafarroari ahalbidetzen zaio obren zati baten egikaritzea aurreratzea hainbat tartetan, baina hori zalantzan gelditzen ari da Estatuko Gobernuaren jarduterik ezarengatik, guri dagozkigun 25 kilometro gutxi horiek lotzeari dagokiona.

Era berean, orain egiten ari diren tarte horiek diseinatu zireneko ezaugarri teknikoak, AHT, auzi-

tan jarri dira, ikuspegi orokor batetik, eta orain Ministerioa bera da proiektu horiei uko egiten diela iragarri duena, gaur egun dituen asmoetan, eta askoz aukera arrazoizkoagoa eta iraunkorragoa sustatzen du. Aipatu aukeran jasotzen dira oraingo korridoreetako zenbait hobekuntza eta hirugarren errei bat ezartzea, Europarekiko banda zabaleko konexioa ahalbidetuko duena.

Eta errealitate hau ikusita, Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du erantzun bat ematea eta horregatik, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak uste du Nafarroan salgaiak eta pertsonak garraiatzeko lehentasunezko baliabide gisa trenbidea garatzearen apustuan lehentasunezkoa eta funtsezkoa dela Iruñerriko kiribilgunearen afera konpontzea, oraingo azpiegiturak eta trazadurak modernizatzea eta bikoiztea eta Europakoekin bateragarriak diren zabalerak egokitzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du birnegozia dezan ADIFekin eta Estatuarekin gaur egun dagoen hitzarmena, Prestazio Handiko Trenerako obrak egikaritzeari buruzkoa, halako moduan non hitzarmenean jasotako erabakiak aplikatu ahalko zaizkion Iruñerriko tarteari, bertako kiribilgunea kentzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du azpiegitura horien ezaugarri teknikoek modernizatzeko planteamenduak bermatu behar dituztela, etorkizuna izanen dutenak, Nafarroari behin betiko aukera emate aldera Europako gainerako lurraldeekin trenbidez lotuta gera dadin.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren kontaktuak has ditzan Eroskiko eta Fagorreko preferenteek Nafarroan kaltetu dituztenekin, inbertitutako aurrezkiak berreskuratzeko konponbideak bilatzeko.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren kontaktuak has ditzan Eroskiko eta Fagorreko preferenteek Nafarroan kaltetu dituztenekin, inbertitutako aurrezkiak berreskuratzeko konponbideak bilatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Berriki, aukera izan dugu Nafarroako Parlamentuan Eroskiko eta Fagorreko preferente izene-

koek kaltetutakoei entzuteko. Haien hitzetan, engainatuak sentitzen ziren jatorriz akastuna zen finantza-produktu bat erosteagatik inbertsio horren arriskuak balioesteko behar adinako informaziorik jaso gabe.

Badirudi irtenbide baterako aukera bakarra bide judiziala dela, kaltetu batzuei eta tantaka, eskaintzen ari omen zaizkien konponbide puntualak. Guztiz koherentea da administrazioak (kaltetutako 2000 nafar horien kasuan, Nafarroako Gobernua) kaltetutakoekin lankidetzan aritzea, kontsumoko zerbitzuen bidez, ahal den irtenbide onena bilatzeko, nahiz eta jakin zailtasunak dau dela, Eroski eta Fagor egoera zailean daudelako gaur egun.

Hori dela eta, ondoko ebazpen proposamena aurkeztzen diogu Legebiltzarreko Osoko Bilkurari, eztabaidatu eta bozka dezan:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren kontaktuak has ditzan Nafarroan Eroskiko eta Fagorreko preferenteek kaltetutakoekin, Foru Komunitateko Kontsumo Zerbitzuaren bidez orientazioa emateko kaltetu horiei, menpeko finantza-ekarpenetan inbertitutako aurrezkiak berreskuratzera zuzendutako konponbideak aurkitze aldera, ekarpen horiek garden-tasunik gabeko baldintza nabarmenetan eman zirelako.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 14an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 19/2002 Legeko 3. artikulua bete eta prestakuntza-ekintzak bidera ditzan helduen hezkuntzan esku hartzen duten agenteentzat, eta susta dezan esparru horretako curriculum-, metodologia-, teknologia- eta didaktika-berrikuntzei buruzko proiektuen lanketa.

BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita 19/2002 Legeko 3. artikulua bete eta prestakuntza-ekintzak bidera ditzan helduen hezkuntzan esku hartzen duten agenteentzat, eta susta dezan esparru horretako curriculum-, metodologia-, teknologia- eta didaktika-berrikuntzei buruzko proiektuen lanketa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Hezkuntza Batzordean azaroaren 5ean "José María Iribarren" Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko ordezkariekin egindako lan bileran, egin duten bideari buruz eta egungo eskaintzari buruz informatu ziguten, bai eta eguneroko jardunean dituzten zailtasunei eta aurre egin nahi dieten erronkei buruz ere. Ikastetxearen bilakaerari buruzko azalpenetan argi gelditu zen errealitate eta beharrezan berrietara egokitzeko ahalmena, zeina aldaketa-eragile izan baita eta,aldi berean, erantzun nahi dieten erronka handi bat baitakar. Bilkura aberasgarria izan zen; izan ere, etapa horrekin konprometitutako irakasleek

orain dela gutxi egindako hausnarketa-prozesetik ateratako ondorio eta kezka nagusien berri eman ziguten.

Kezkatuta agertu ziren krisia ondorio bereziki latzak izaten ari delako helduen etengabeko hezkuntzan; adierazi zigutenez, haien irudipena da eskaintza ez areagotzeaz ez ezik murriztu ere murriztu dela, plantilla organikoko lanpostuak gutxitzean. Horrek guztiak berekin dakar eragozpen ugari egotea populazioaren beharrezan berriei behar bezala eta modu koordinatuan erantzun ahal izateko, etaparen berezitasunari egokitu gabeko araudi batekin lan egiteak dakartzan eragozpenez gain.

Haien kezkek eta eskakizunak kontuan hartuta aurkeztu dugu honako erabaki proposamen hau:

1. Nafarroako Parlamentuak uste du bitzita osoko prozesu bat dela hezkuntza, eta, halatan, eskualde guztietan herritarrek egindako eskariari erantzuteko bideak prestatu behar direla aipamarratzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

a. Helduentzako Hezkuntzaren Liburu Zuria taxutu dezan 9 hilabeteko epean, etapa horren berezitasunak kontuan hartuko dituen eta eskueran dauden baliabide eta beharrezan guztiak jasoko dituen.

b. Helduen Hezkuntza arautzen duen 19/2002 Legea gara eta egokitu dezan; hartara, ikastetxeen adinako eremu-egitura bat eta helduen hezkuntzako departamentu arteko batzordea sortuko ditu.

c. Aukera eman dezan helduen oinarrizko hezkuntzako ikastetxe publikoek ziurtagiriak egin ahal izan ditzaten ematen dituzten ikasketa guztiei buruz.

d. Helduen hezkuntzari, bereziki Orientazioaren eta Pedagogia Terapeutikoaren arloetan, baliabideak eman diezazkion, ikasleen behar bereziei erantzun ahal izateko.

e. 19/2002 Legeko 3. artikulua betetzeko, prestakuntza-ekintzak bidera ditzan helduen hezkuntzan esku hartzen duten agenteentzat eta susta dezan esparru horretako curriculum-, metodologia-, teknologia- eta didaktika-berrikuntzei buruzko proiektuen lanketa.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 15ean.

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal eta txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko lehendakaria gaitzesten da, egiazkotzat jo baitu Guardia Zibilaren ustezko txosten bat, Barne Ministerioak dioenez existitzen ez dena, eta Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio erantzukizunak argitu ditzan, kargu instituzionalek emandako informazio okerrak direla eta.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko lehendakaria gaitzesten baita, egiazkotzat jo baitu Guardia Zibilaren ustezko txosten bat, Barne Ministerioak dioenez existitzen ez dena, eta Nafarroako Gobernuari exijitzen baitzaio erantzukizunak argitu ditzan, kargu instituzionalek emandako informazio okerrak direla eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Joan den azarotik aurrera, hainbat gertakari izan dira, Nafarroako hezkuntza publikoa, eta bereziki D ereduko irakasleak, begira-puntuan jarri dituztenak.

Guardia Zibilaren ustezko txosten batetik abiatuta, ordezkari politiko batzuek, zenbait komunikabiderek batera, filtrazio hori erabili dute, beligerantzia handia erakutsiz, alde batetik, eta beste alde batetik anbiguotasuna. Hori guztia benetako eskandalu politikoa eta mediatikoa izan da.

Zenbait baieztapen ohikoak izan dira; hala nola, "ETA nafar eskolan infiltratzen ari da", "nafar irakasleen % 27 ETArekin alderatuz dira", eta zenbait titularretan talde politiko batzuei era sotilean leporatu zaie ikasgeletan terrorismoaren apologia onartzea.

Hasieratik bertatik zalantza gehiegi zegoen: benetan ba al zegoen Guardia Zibilaren txostenik? Zeri buruzkoa zen? Nork eskatu du? Bakarrik D ereduko ikastetxeak eta irakasleak ikertu dituzte? Gainerako eremuren batean ikertu dute? Nolako zioak daude ikerketa justifikatzeko?, eta abar.

Barne ministroak berriki esan du Diputatuen Kongresuan, parlamentarien galdera bati erantzunez, Guardia Zibilak ez duela inolako txostenik egin Nafarroako hezkuntza publikoari eta irakasleei buruz.

Hori egia bada, Guardia Zibila erabilia izan da alderdikeriaren mesedetan, eta funtsik gabeko salaketa maltzurren bidez Nafarroako hezkuntza-komunitateko kideen ospea, bereziki D ereduko irakasleen, ikasleen eta familien ospea, kaltetu dute.

zilegi ez diren alderdi-interesengatik, Guardia Zibila erabili dutenek informazio anbiguoak filtratu dituzte, sortu den emaitza gaiztoa lortzeko asmoz.

Egoera hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakaria gaitzesten du, egiazkotzat jo baitu Guardia Zibilaren ustezko txosten bat, Barne

Ministerioak dioenez existitzen ez dena, eta hura alderdikeriak erabili duelako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio urgentziaz joka dezan erantzukizunak argitzeko, kargu instituzionalek emandako informazio okerrak direla eta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio behar diren neurriak eta jarduerak gara ditzan, Nafarroako hezkuntzako sistema publikoari, hezkuntza komunitateari, irakasleei, hezkuntzako ikuskapen zerbitzuari eta, bereziki, D ereduko irakasle eta ikastetxeei egin zaien kaltea arintzeko, ahal den neurrian.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 16an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Europar Batasunetik kanpoko Barruko Mediku Egoiliarren estatusa alda dezan, ikasketa-baimenaren ordezkari- eta egonaldi-baimena emanaz.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2014ko urtarrilaren 15ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Europar Batasunetik kanpoko Barruko Mediku Egoiliarren estatusa alda dezan, ikasketa-baimenaren ordezkari- eta egonaldi-baimena emanaz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio Europar Batasunetik kanpoko Barruko Mediku Egoiliarren estatusa alda dezan, orain duten ikasketa-baimenaren ordezkari- eta egonaldi-baimena emanda, horrek bermatuko baimen langabezia-prestazioa jasotzea Nafarroako Osasun Sistemaren Barruko Mediku Egoiliar sendagile gisa prestakuntza hartu ondoren".

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du Nafarroan bizi diren pertsona guztientzako osasun laguntzari eutsi behar zaiola, eta berriz ere aldarrikatzen du Nafarroak osasunaren eta autogobernuaren arloetan dauzkan eskumenen defentsa.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2014ko urtarrilaren 15ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du Nafarroan bizi diren pertsona guztientzako osasun laguntzari eutsi behar zaiola, eta berriz ere aldarrikatzen du Nafarroak osasunaren eta autogobernuaren arloetan dauzkan eskumenen defentsa."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak berresten du Nafarroan bizi diren pertsona guztientzako osasun laguntzari eutsi behar zaiola, zein ere den haien administrazio egoera, eta aldarrikatzen du Foru Komunitateak osasunaren eta autogobernuaren arloetan dauzkan eskumenen defentsa.

2. Nafarroako Parlamentuak formula egokia bilatuko du Nafarroako Administrazioan osasun laguntza doakoa eman dakien Nafarroan bizi diren pertsona guztiei.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, behar den epean eta moduan ager dadin otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legearen konstituzionaltasuna defendatzera, Nafarroan bizi diren pertsonen Nafarroako osasun sistema publikoko osasun laguntza doakoa izateko eskubidea onartzen dienarena, eta dagozkion alegazioak aurkez ditzan, hura defendatzeko eta aipatu foru legea besterik gabe eta kautelaz etetearen aurka egiteko".

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pobrezia energetikoari aurrea hartzeko eta aurka egiteko plan bat egin dezan, etxeko energia-kontsumo oinarritzoei aurre egiterik ez duten familiei laguntzeko neurriak jasoko dituen.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2014ko urtarrilaren 15ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pobrezia energetikoari aurrea hartzeko eta aurka egiteko plan bat egin dezan, etxeko energia-kontsumo oinarritzoei aurre egiterik ez duten familiei laguntzeko neurriak jasoko dituen."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea "pobrezia energetikoa" izeneko fenomenoari aurrea hartzeko

eta aurka egiteko plan bat aztertu eta abian jar dezan. Aipatu planak lehentasuna emanen die pobrezia energetikoa jasaten duten etxeei, instalazioen efizientzia eta segurtasuna hobetzeko, laguntzak eskuratzeari dagokionez.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea aipatu plan hainbat neurri sar ditzan, esate baterako, familiei zuzeneko laguntzak ematea, osasun arazoak ekiditeko behar diren gutxieneko kontsumo energetikoak ordaindu ahal izateko. Laguntza horiek emateko oinarria izanen da familiaren errenta, irizpide argi, garden eta homogeneous jarraikiz. Hilabeteko konputuan bizirauteko gutxieneko kontsumoak ezarriko dira, etxeko kide kopuruaren eta urtaroaren arabera; era horretan, gutxieneko kontsumo ezberdinak ezarriko dira

eguraldiaren arabera, urtean, gutxienez, bi denboraldi kontuan hartuta: apiriletik irailera, eta urritik martxora.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea, bere eskumenen esparruan sistema bat bila dezan, neguko egitatezko menia bat ezarriko duena; haren bidez, enpresa hornitzaileek ezin izanen

lukete eten elektrizitate, gas edo ur zerbitzua ez ordaintzeagatik, betiere, zehaztuko diren familia errentaren baldintzak betetzen badira, edo gizarte zerbitzuen arloko organo eskudunaren txostena dagoenean".

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da talka-plan bat diseina dezan, ez diezaieten argindarraren hornidura ken gizarte-zaurgarritasuneko egoeran dauden familiei.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2014ko urtarrilaren 15ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da talka-plan bat diseina dezan, ez diezaieten argindarraren hornidura ken gizarte-zaurgarritasuneko egoeran dauden familiei".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Kontuan hartuz energia hornidura behar bat dela pobrezian edo arazo ekonomiko larrietan daudenentzat, bereziki oraingo krisialdian, eta DAFO analisisian atzeman diren beharren arabera,

Nafarroako Gobernua premiatzen da, presako izaerarekin:

1. Talka-plan bat diseina dezan ez diezaieten argindarraren hornidura ken gizarte-zaurgarritasuneko egoeran dauden familiei.

2. Gizarte entitateekin ados dezan gai horretarako jarduketa plan bat, egiturazko erantzun bat emango duena, eta ez soilik koiunturazko erantzun bat.

3. Gizarte bazterkeriaren aurkako planean neurri gisa sartzeari, estrategia integral baten zati bat izateko, eta modu arinean ezarriko dena".

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabaki baitu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak artatu behar dituela Espainiatik kanpo hiru hilabete baino gehiago daramaten eta prestazioa agortu duten langabetuak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak erabaki du ez abandonatzea pertsona horiek, zeinak, enplegua bilatzearen beren herritik alde egin behar izateko egoera mingarrian egoteaz gain, orain osasun-

laguntza jasotzeko eskubidea galtzeko arriskuan dauden; hortaz, Nafarroako Osasun Zerbitzuak artatu egingen ditu Espainiatik kanpo hiru hilabete baino gehiago daramaten eta prestazioa agortu duten langabetuak".

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zein urrats egin behar dituen Nafarroako Gobernuak, saihesteko foru erkidegoan ezar dadila larrialdikoa ez den osasun garraioaren koordainketa.**SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zein urrats egin behar dituen Nafarroako Gobernuak, saihesteko foru erkidegoan ezar dadila larrialdikoa ez den osasun garraioaren koordainketa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, heldu den urtarrilaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Orain dela gutxi jakin dugunez, Espainiako Gobernuak koordainketa berri bat ezartzeko asmoa du; oraingo honetan, osasun-garraio ez-urgenterako, eta pertsona nagusiei, dialisi-prozesuan daudenei, minbizia duten gaixoei eta abarri eraginen lieke.

Gauzak horrela, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran erantzuteko:

- Nafarroako Gobernuak ekintzarik abiarazi behar al du koordainketa hori Foru Komunitatean ezar dadin ekiditeko?

- Zer ekintza abiaraziko du? Noiz?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, 2012-2013 ikasturteko eskola garraiorako aurrekontuan jarritako diru-kopuruari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, 2012-2013 ikasturteko eskola garraiorako aurrekontuan jarritako diru-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

2012-2013 ikasturtean eskola garraiorako aurrekontuan zegoen kopuruaren desglosea: "410004-Servicios complementarios" proiektuan ageri den "Transporte Escolar". Zein ikastetxetako ikasleri, zenbat diru esleitu zaie garraio konzeptuan?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Nafarroako Kutxa Fundazioaren 2014ko ekitaldirako aurrekontuari, azalpen oroitidazkiari eta jarduketa planari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxa Fundazioaren 2014ko ekitaldirako aurrekontuari, azalpen oroitidazkiari eta jarduketa planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua, indarra duten estatutuen arabera, Nafarroako Kutxa Fundazioaren entitate sortzailea da eta babesletzaren egitekoa betetzen du; 2014ko ekitaldiari dagokionez, ondoko hauek eskatzen dira fundazio horri buruz:

– Aurrekontua.

– Azalpen-oroitidazkia.

– Jarduketa plana, helburuak eta egin beharrekoko jarduerak dituena.

Dokumentazio hori Nafarroako Gobernuaren eskuetan egon behar da, aipatu estatutuetako 40. artikulua edukiarekin bat.

Halaber, galdetzen da fundazioak aipatu dokumentazioa Nafarroako Gobernuari bidali zion data-ri buruz.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, 2013ko ekainean onetsitako Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutu berrietan ezarritako eskumen berekiak betez Nafarroako Gobernuak 2013an egindako jarduketei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, 2013ko ekainean onetsitako Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutu berrietan ezarritako eskumen berekiak betez Nafarroako Gobernuak 2013an egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2013. urtean egin dituen jarduketak, 2013ko ekainean onetsi ziren Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutu berrietan ezartzen diren berezko eskumenak betetzeko. Jarduketa horiek, estatutuen edukiari jarraikiz, entitate sortzaile izateagatik eta aipatu entitatearen babesletzaren eginkizuna betetzeagatik dagozkie.

Zerrenda eskatzen da, jarduketaren dataren arabeko ordenan, eta, halaber, egindako jarduketaren laburpen txikia eta, kasua bada, hura egiaztatzen duen dokumentazioa.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Industria eta Ekonomia Departamentuak enpresa-inbertsiorako eta enplegua sortzeko 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Industria eta Ekonomia Departamentuak enpresa-inbertsiorako eta enplegua sortzeko 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Industria eta Ogasun Departamentuak 2005etik 2013ra bitartean enpresa inbertsiorako eta enplegua sortzeko eman dituen zuzeneko laguntzen zerrenda.

Aipatu zerrenda ondotik ematen diren kontzeptuen arabera xehakaturik ematea eskatzen da:

– Urtea.

– Aurrekontuetako zenbatekoa ekitaldi bakoitzaren hasieran.

– Eskatzaileei ordaindutako zenbatekoa ekitaldi bakoitzean.

– Ekitaldi bakoitzean aurkeztutako proiektuen kopurua.

– Ekitaldi bakoitzean diruz lagundutako proiektuen kopurua.

– Ekitaldi bakoitzean sorrarazi den inbertsioa.

– Ekitaldi bakoitzean sorrarazi den enplegua.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Industria eta Ekonomia Departamentuak I+G+B delakorako 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Industria eta Ekonomia Departamentuak I+G+B delakorako 2005etik 2013ra bitartean emandako zuzeneko laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Industria eta Ekonomia Departamentuak 2005etik 2013ra bitartean I+G+B-ko eman dituen zuzeneko laguntzen zerrenda.

Aipatu zerrenda ondotik ematen diren kontzeptuen arabera xehakatu ematea eskatzen da:

– Urtea.

– Aurrekontuetako zenbatekoa ekitaldi bakoitzaren hasieran.

– Eskatzaileei ordaindutako zenbatekoa ekitaldi bakoitzean.

– Ekitaldi bakoitzean aurkeztutako proiektuen kopurua.

– Ekitaldi bakoitzean diruz lagundutako proiektuen kopurua.

– Ekitaldi bakoitzean sorrarazi den inbertsioa.

– Ekitaldi bakoitzean sorrarazi den enplegua.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroan Ekintzaileei eta Lan Autonomoari laguntza emateko 12/2013 Foru Legeko IV. kapituluaren jasotako laguntzetarako 2014ko deialdiari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan Ekintzaileei eta Lan Autonomoari laguntza emateko 12/2013 Foru Legeko IV. kapituluaren jasotako laguntzetarako 2014ko deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaiola:

Nafarroan ekintzaileei eta lan autonomoari laguntza emateko 12/2013 Foru Legeak honako laguntza hauek jasotzen ditu:

"Babes sozialeko bestelako neurriak

17. artikulua. Laguntzak.

Nafarroako Gobernuak babes sozialaren arloko laguntzak emanen dizkie Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean beren konturako jarduerak bat garatzen duten pertsonen, hurrengo idatziztatietan ezarritakoaren arabera.

1. Jardueraren hasierarekin lotutako gizarte laguntzak.

Aldian-aldian, Nafarroako Gobernuak laguntza-plan bat ezarriko du, Foru Komunitateko lurraldean norberaren konturako jarduerak abiarazteko. Plan horretan, berriazko laguntzak jaso ahalko

dira langabeziagatik kotizaziopeko prestazioaren ordainketa bakarraren modalitatea aukeratzen dutenentzat, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazioa ordaintzeko laguntzak ere, diru-sarrera nahikoak ez izatea edo eskatzailearen adina edo eskatzaile berria izatea bezalako faktoreei, besteak beste, erreparatuta.

2. Gizarte Segurantzaren kuotetarako hobariak.

Nafarroako Foru Komunitateak hitzarmenak izenpetu ahalko ditu Gizarte Segurantzarekin kotizazioetarako hobari gisako laguntzak bideratze aldera, Erkidegoarentzat interes berezikoak diren artisautza- edo arte-jarduerak eta kultur jarduerak garatzen dituztenentzat.

3. Jarduera eteteko kasuetarako laguntzak.

a) Nafarroako Gobernuak gizarte laguntzak emanen dizkie behar bezala egiaztatutako arrazoi objektiboak tarteko beren konturako jarduerak eteten dutenei. Laguntza horiek berriaz bideratuta egonen dira jarduerak etetera jarduerak ekonomiko eta profesionala berritze aldera.

b) Kasu horretan, jardueraren titularrak, laguntza-eskariarekin batera, jarduerak edo establezimendua berritzeko edo erreformatzeko kasuko proiektua aurkeztu beharko du, bai eta langile autonomoaren aurrekontu eta inbertsio pertsonalaren proiektua ere.

c) Laguntza horiek emateko terminoak kasuko erregelamenduaren bitartez garatuko dira, Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontuei buruzko Foru Legean jasotako aurrekontu-aurreikuspenen barruan".

Hori ikusita, honako hau jakin nahi dut:

- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak gisa horretako laguntzetarako deialdia egitea 2014an? Kasua bada, noiz egin behar du deialdia?

- Zer diru-kopurutakoa izanen da deialdia?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, azken hamar urteotan Orkoienen biomasa bidezko elektrizitate ekoizpenerako planta bat jartze aldera Nafarroako Gobernuak guztira bideratutako diru-kopuruari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, azken hamar urteotan Orkoienen biomasa bidezko elektrizitate ekoizpenerako planta bat jartze aldera Nafarroako Gobernuak guztira bideratutako diru-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu organo eskudunari, idatziz erantzun diezaion:

Orkoienen biomasa bidezko elektrizitate ekoizpenerako planta bat jartzeko espediente artxibatatu dela jakin ostean –Naforensa-Navarra Forestal Energética, S.A.k sustatua–, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

- Nafarroako Gobernuak azken hamar urteotan jarduera zapuztu horretara guztira bideratutako gastuaren zenbatekoa, kontzeptuak xehakaturik.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Senda Vivaren jarduera birplanteatzeko muga gisa Nafarroako Gobernuak darabiltzan ondoz ondoko EBITDA adierazleen datari eta galera-zenbatekoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Senda Vivaren jarduera birplanteatzeko muga gisa Nafarroako Gobernuak darabiltzan ondoz ondoko EBITDA adierazleen datari eta galera-zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zein muga jarri behar du Nafarroako Gobernuak ondoz ondoko EBITDA adierazleetan, datari eta galera-zenbatekoari dagokienez, Senda Vivaren jarduera birplanteatzeko?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, gazte txartela gaztelera-ingeles ez egiteari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, gazte txartela gaztelera-ingeles ez egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko

Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Gazte txartela dela-eta ondokoa galdetu nahi du parlamentari honek.

1. Azkenaldian txartel hauek gaztelera-ingeles ez dira egiten. Zergatik?

2. Azkenaldian Gazte txartela euskaraz egiteko ezintasuna dago. Ba al du Gobernuak txartel hauek euskaraz emititzeko asmorik?

3. Euskararen Legea betez, txartel hauek euskaraz egitera behartua dago Gobernua. Noizko egingen du?

4. Egun gaztelera txartela egitera behartuak dauden pertsonen ematen al zaie aukera txartela euskaraz egiteko, prest izan orduko?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2013. urtean zehar foru parlamentariei emandako ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15.4 artikulua ezartzen du Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direla foru parlamentari guztiek aurreko urtean jasotako ordainsariak.

2013. urtean foru parlamentariei emandako ordainsari guztien zerrenda xehakatu ikusirik,

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak egina, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgunean argitara dadin agintzea.

2. Erabaki hau jakinaraztea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

2013. urtean ordaindutako ordainsariak**Foru parlamentariak**

Izen-abizenak	Ordainsari finkoa	Beratarztearen truke jasotako ordainsariak	Kilometro-ordaina	Bestelako ordainketak	Guztira (eurotan)
Amezketá Díaz, Koldo	55.601,14	-	-		55.601,14
Aranoa Astigarraga, Miren Julia	49.422,10	-	-		49.422,10
Arraiza Zorzano, M ^a Victoria	49.422,10	-	-		49.422,10
Ayerdi Olaizola, Manuel	37.066,54	-	-		37.066,54
Barea Aiestaran, Bikendi	49.422,10	-	-		49.422,10
Beltran Villalba, Ana	49.422,10	-	-		49.422,10
Caballero Martínez, Javier	18.327,34	14.024,48	176,08		32.527,90
Caro Sádaba, Samuel	55.601,14	-	8.130,68		63.731,82
Casado Oliver, Ramón	49.422,10	-	4.312,72		53.734,82
Castillo Floristán, M ^a Victoria	49.422,10	-	5.828,00		55.250,10
Catalán Higuera, Alberto	67.620,70	-	-		67.620,70
De Simón Caballero, Marisa	49.422,10	-	-		49.422,10
Esparza Iriarte, Jesús	49.422,10	-	-		49.422,10
Esporrin Las Heras, Maite	55.601,14	-	-		55.601,14
Fdez. de Garayalde y Lazcano Sala, Asun	49.422,10	-	4.433,00		53.855,10
Felones Morrás, Román	49.422,10	-	3.879,03		53.301,13
Ferrer Cajal, M ^a del Carmen	49.422,10	-	5.944,56		55.366,66
Gainza Aznarez, Coro	49.422,10	-	-		49.422,10
Galilea Arazuri, Gregorio	49.422,10	-	2.962,98		52.385,08
Garbayo Berdonces, Raquel	44.702,01	-	3.786,34		48.488,35
García Adanero, Carlos	11.914,52	27.095,84	-		39.010,36
Garijo Pérez, Esteban	37.066,54	-	6.335,16		43.401,70
Gómez Ortigosa, Jerónimo	49.422,10	-	4.491,90		53.914,00
González García, Camen M ^a	49.422,10	-	5.681,68		55.103,78
Jiménez Alli, Roberto	55.601,14	-	-		55.601,14
Jiménez Hervás, Txentxo	55.601,14	-	-		55.601,14
Lasa Gorraiz, Frantzisko Xabier	49.422,10	-	-		49.422,10
Leuza García, Patxi	49.422,10	-	-		49.422,10
Lizarbe Baztán, Juan José	37.066,54	-	-		37.066,54
Longás García, Juan Carlos	49.422,10	-	-		49.422,10
Lorente Pérez, Francisco Javier	-	28.729,76	-		28.729,76
Martín de Marcos, Enrique	55.601,14	-	6.527,36		62.128,50
Mauleón Echeverría, Txema	49.422,10	-	-		49.422,10
Nuin Moreno, Miguel	55.601,14	-	-		55.601,14
Ochoa Canela, M ^a Camen (*)	49.422,10	-	-	951,39	50.373,49
Otamendi Claramunt, Amaya	-	23.555,68	713,00		24.268,68
Pérez Irazabal, Nekane	49.422,10	-	6.132,11		55.554,21
Pérez Prados, Antonio	-	31.074,14	-		31.074,14
Ramírez Erro, Maiorga	49.422,10	-	2.994,60		52.416,70
Rapún León, José Antonio	49.422,10	-	7.192,00		56.614,10
Rascón Macías, Pedro	49.422,10	-	-		49.422,10
Rubio Martínez, Víctor	49.422,10	-	-		49.422,10
Ruiz Jaso, Bakartxo	55.601,14	-	-		55.601,14
Sanzberro Iturriria, Begoña	37.066,58	11.109,00	2.999,56		51.175,14
Sarasola Jaca, Aitziber	49.422,10	-	-		49.422,10
Sayas López, Sergio	49.422,10	-	-		49.422,10
Villanueva Cruz, Eloy	40.155,43	-	-		40.155,43
Zabaleta Zabaleta, Patxi	41.700,82	-	-		41.700,82
Zarranz Errea, Amaya	49.422,10	-	-		49.422,10
Bozal Bozal Josefina (**)				5.793,25	5.793,25
	2.201.314,94	135.588,90	82.520,76	6.744,64	2.426.169,24

(*) Lokomozio-gastuengatikoko ordainketa.

(**) Gizarte babesarako laguntzak

Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2014rako ordutegi ofiziala.

Kontuen Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako ebazpen hau eman zuen:

Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala zehazteko, erakunde honetara zuzendutako dokumentazio ofiziala jasotzeari dagokionez, lehendakaritza honek

EBATZI DU:

Lehena. Xedatzea Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2014. urterako ordutegi ofiziala 08:30etik 14:30era bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera.

Bigarrena. Xedatzea ezen, Kontuen Ganberara zuzendutako dokumentazioa erregistratzearen

ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Orokorra itxita egonen dela larunbat, igande eta Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza, Justizia Barneko kontseilariaren abenduaren 20ko 267/2013 Foru Aginduan ezarritako jai-egunetan, bai eta uztailaren 8an, 9an, 10ean, 11n eta 14an ere, egun horiek baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Kontuen Ganberako langile guztiei igortzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberako webgunean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas